

## Tximeleta intergalaktikoa

**O**rain arte, tximeletak hegura inguruan hegaka ezagutu ditugu; laster ordea, Lurraren biran, espazioan, nabigatuko dutela esan daiteke. Alabaina, ez dadila inor ikara albiste horren aurrean, intsektu horiek ez baitira egiazkoak izango, robotak baizik; hau da, satelite oso txikiak. Tximeleta-itxurako lehen prototipoa diseinatu du NASAko zientzilaria batek eta proiektuaren arrakastaz ezer esan baino lehen, 50 penikeko txanponaren tamaina duen robota espazioko giro gogorra jasateko gai den ikusi behar da. Proba hori gaindituz gero, prototipoaren egileak "espezie" gehiagorekin saiatzeko asmoa duela iragarri du. Robotak oso txikiak direla esan dugun arren, betebeharrak garrantzitsuak izango dituzte: Lurraren eremu magnetikoa neur-



tzeaz, espazioa miatzeaz edota satelite handien arteko komunikazioa errazteaz arduratuko dira, besteak beste.

Prototipo horien abantailen artean, alderdi ekonomikoa aipatu behar da. Izan ere, diseinu berriko satelitetoak oso merkeak izango dira ohizko robotekin konparatuz. Satelitetoak egiteko erabiliko den materiala musika-ekipoen eta ordenadoreen pieza birziklatuz egingo da eta.

Sateliteen tamaina hain txikia izateak muga fisiko gaitzesiak dituela dioen ahotsik ere entzun da. Esate baterako, erresoluzio handiko irudiak egiteko 300 ml-ko lentes behar dela eta robotaren azalera txikian hori ezinezkoa dela entzun da.

Oztopoak oztopo, tximeleta intergalaktikoaren egilearen asmoa "intsektu" gehiago egin eta espazioan nabigatzen jaritzea da. Geroak esango digu bada, noraino iritsiko diren etorkizuneko tximeletak.

**Tximeleta da, baina ez lorez lore hegaka ibiltzen den horietakoa. Espazioan nabigatuko duen tximeleta-satelitea da eta bazter ezezagunak miatu, Lurraren eremu magnetikoa neurtu edota sateliteen arteko komunikazio-loturak erraztuko ditu.**



**Microsoft etxeak iragarri duenez, kalitate oneko filmeak laster ikusi ahal izango ditugu PCren multimediatan. Konpresio-sistema aurreratu bati esker, segundoko hogeita lau irudi lortu ahal izango direla esan dute.**

## Segundoko hogeita lau

**M**ultimediaren arloan berrikuntza aipagarriak gertatu badira ere, filmeren bat ikusi nahi dugunean ez zaigu burutik pasa ere egiten etxeko PCaren pantailan ikusten hasia; gaur gaurkoz, izan ere, irudien kalitateak negargarria izaten segitzen du. Horra hor, beraz, informatikarien erronka berria: filmea ordenadore-pantailan telebistan bezain ongi ikusi dezagun lortzea. Eta itxura guztien arabera, ahaleginaren lehen fruituak ezagutzen hasiak gara. Irudi mugikorak PCko pantailan ikusteko biderik egokienetakoa konpresio-sistema bikain bati esker lortu da. Sistema horrek irudi bakoitzari dagokion informazio berria baino ez du gordetzen eta deskodetzen. Berrikuntzak ordea, arazo nagusi bat du: potentzia handiko PCaz gain,

aparteko hardware-a beharrezkoa da eta beraz, filmea dexente samar ikusteko poltsikoa astindu egin behar da.

Aparteko hardwarerik erabili gabe ere, irudiak kalitatez ikusi daitezke. Esaterako, CD batean gorde dugun filmea konpresio-sistema bera erabiliz ikusi daiteke. Metodo horren bidez, irudiak ikusi ahal izateko Windows programa behar da.

Bestalde, Microsoft etxeak ekainerako filmeak kalitate hoberekin ikusi ahal izango ditugula agindu du. VHS kalitateko irudiak eta musika estereoa. Gutxienez 90 megahertz-eko PCa eta ActiveMovie izeneko programa dira. Software irudiak deskodetzeaz arduratuko da eta gainera, segundoko hogeita lau irudi emango omen ditu. Filmea aukeratu eta itxaron dezagun bada, ekainera arte.

